

Partaidetzarako Herritar Erakundeen Foru Erregistroan izena ematea

Fitxa interneten bistaratu

INFORMAZIO OROKORRA

Helburua

Partaidetzarako Herritar Erakundeen Foru Erregistroak herritarren partaidetza sustatzea du xede, informazio eskubidea aitortuz gardentasuna bermatzeko, eta partaidetza prozesuetarako herritarren ekimenaren eskubidea gauzatu ahal izateko, baita partaidetza sistemaren ebaluazio orokorrerako prozesuan entzunda izateko.

Nork tramitatzen du

- GOBERNANTZA DPTUA.
- Herritarren Partaidetzako Zuzendaritza Nagusia
- Herritarren Partaidetzarako Zerbitzua

Nori zuzenduta

Pertsona juridikoak, irabazi asmorik gabeak, duen forma juridikoa eta izaera edozein direla ere, baldin eta interes kolektiboen, hala orokorren nola sektorialen, defentsa badute xede; erakunde politikoak hemendik kanpo gelditzen dira

Baldintzak

Beren jarduerak, modu eksklusiboan izan ala ez, Gipuzkoako Lurralde Historikoan egitea, dela lurralde osoa dela lurraldearen zati bat hartuta Erregistroan ez dira inolaz ere onartuko genero desberdintasuna betikitzen duten erakundeak.

HASIERA ETA ESKAERA

Aurkeztu beharreko formularioak eta ereduak

- [Eskaera formularioa](#)

[Zuzendaritza karguen edo ordezkarien eta bazkide kopuruaren ziurtagiriaren ereduak](#)
[Eskaera betetzeko laguntza](#)

Aurkeztu beharreko agiriak

- Erakundea eratzeko aktaren kopia kautotua
- Bere izaeratik dagokion erregistroan izena eman izanari buruzko ziurtagiria
- Erakundearen estatutuen kopia
- Iazko jardueren txostena

Eskaera moduak

» Internet » Presentziala

Internet bidezko eskaera

[Sakatu tramitazioa hasteko](#)

Tramitazio elektronikorako beharrezko identifikazioa

» Sinadura elektronikoa/ziurtagiri digitala

Zuzeneko arretarako bulegoak

[Informazio eta Erregistro bulego orokorrak](#)

EBAZPENA

Ebazteko gehienezko epea

Bi hilabete

Administrazioaren isiltasuna

Onespenezkoa

ARAUDIA

5/2018 [Foru Araua](#), azaroaren 12koa, Herritarren Partaidetzari buruzkoa.

Partaidetzarako Herritar Erakundeen Foru Erregistroan inskribatzeko jarraibideak ematen dituenari buruzko 2011ko urtarrilaren 14ko [R- 3/2011 Foru Dekretua](#)

INFORMAZIO OSAGARRIA

Oharrak

Foru erregistroan izena emandako erakundearen ordezkariak edo zuzendaritzako kideek gaurkoturik mantendu behar dituzte, derrigorrean, erakundeari buruzko datuak. Erakundearen egoerari lotutako gertakariak edo datu garrantzitsuak ez jakinarazteak Foru Erregistroko izena-ematea etenik uztea ekar dezake eta erakundeari egoki dakizkiokeen eskubideak gal ditzake halaber, jakinarazpen falta hori konpontzen ez den arte

Informazio gehigarria

[Partaidetza](#) web orrirako lotura